Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco - Sarrera/Entrada - 2023/11/15 - 09:29:41 - Zk./Núm.: 6574

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2023 AZA. NOV. 15
SARRERA/ENTRADA 6574 IRTEERA/SALIDA

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Dokumentu mota / Tipo de documento: OSOKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: ZABALA, ALAITZ (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Data / Fecha: 2023.11.15

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12/11/02 /01/00607
Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Lehen Arretan herritarren osasun mentala sustatzeko eta ongizate emozionalerako abilezia eta bitartekoak eskuratzeko profesional psikosozialak txertatzeari buruz // Relativa a la incorporación de profesionales psicosociales para la promoción de la salud mental y la adquisición de habilidades y recursos para el bienestar emocional de la población en Atención Primaria.

Osasun Saila Osasun Mentaleko Estrategia berria prestatzen ari da, arlo horretan Legebiltzarrean hartutako zeharkako akordioetan oinarrituta.

Horien arabera, eta 2021-2024 Arreta Soziosanitarioko Estrategiak ekarri duen mugarriarekin bat etorriz, Osasun Mentaleko Estrategia berriak arreta komunitarioko ereduan sakondu beharko du, osasun mentalaren arloan aurrera egiteko, arreta integral egokia lortzeko helburuarekin, zaintza sozial eta sanitarioen ereduan paradigma-aldaketa ezarriz. Estrategia horrek tresna baliagarriak eskainiko ditu herritarren osasun mentala hobetzeko, gaixotasun mentala duten pertsonen osasun mentala eta fisikoa modu integralean artatzeko, familiei laguntzeko eta arreta integraleko eta komunitarioko eredu bat sustatzeko, sendatzen eta gizarteratzen laguntzeko.

Ildo horretan, Osasun Mentaleko Aholku Batzordea osasun mentalaren arloan

El Departamento de Salud está ultimando la elaboración de la nueva Estrategia de Salud Mental, sobre la base de los acuerdos parlamentarios transversales adoptados en esta materia.

Conforme a los mismos y en consonancia con el hito que ha supuesto la Estrategia de Atención Sociosanitaria 2021-2024, la nueva Estrategia de Salud Mental debe profundizar en el modelo de atención comunitaria para avanzar en materia de salud mental, con el objetivo de lograr una atención integral adecuada, implementando el cambio de paradigma en el modelo de cuidados sociales y sanitarios. Una estrategia que proporcione herramientas útiles para mejorar la salud mental de la población, para atender de forma integral la salud mental y física de las personas con enfermedad mental, para apoyar a sus familias y promover un modelo de atención integral y comunitario que favorezca la recuperación e integración social.

En este sentido, el Consejo Asesor de Salud Mental es el órgano consultivo para el

aholkularitza teknikoa emateko organo aholku-emailea da, eta bere helburuen artean, Euskadin gaixotasun mentala duten pertsonei laguntzeko estrategiaren inguruan adostasun zabalak bilatzea eta hartzea du.

Kontseilu honek 4 dokumentu egin ditu helburu horrekin: estrategia bera eta elikadura-portaeraren nahasmenduei, haurren eta gazteen arretari eta patologia dualari buruzko plan monografikoak.

Esandako guztiagatik,

Eusko Legebiltzarrak berretsi egiten ditu Osasun Mentaleko estrategia berriak bete behar dituen parametroei buruz hartutako erabakiak, eta, ildo horretan, Osasun Sailari eskatzen dio jarrai dezala osasun mentalaren arretarako eredu komunitarioa garatzen eta indartzen, eta estrategia berria Eusko Legebiltzarrean aurkez dezala, hura amaitu ondoren.

asesoramiento técnico en materia de salud mental y tiene, entre sus finalidades, la búsqueda y la adopción de consensos amplios en torno a cuál debe ser la estrategia de la asistencia a las personas con enfermedad mental en Euskadi.

Este Consejo ha elaborado 4 documentos con ese fin: la propia estrategia y los planes monográficos sobre Trastornos de Conducta Alimentaria, Atención Infantojuvenil y Patología Dual.

Por todo lo dicho,

El Parlamento Vasco se ratifica en los acuerdos adoptados en relación a los parámetros que debe observar la nueva estrategia de Salud Mental y, en este sentido, insta al Departamento de Salud a que continúe con el desarrollo y fortalecimiento del modelo comunitario de atención a la salud mental y a presentar la nueva Estrategia en el Parlamento Vasco, una vez ultimada.

EA-NV

ES-SV